

TREBAKUNTZA 2018-09: ADITZAREN ASPEKTUA

Udal idazki askotan, denboraren aspektua ez da zuzen erabiltzen. Askotan, -t(z)en gaizki erabiltzen da, lekuz kanpo. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

OHIKO AKATSAK

1. **[Akta batean] Udalbatzak txostena onartzea **erabakitzen du**, eta, horrenbestez, bilera **bukatzen da**.*
2. **[Kronologia batean] 1998ko martxoa: hauteskundeak **egiten dira** eta XXX alderdiak **irabazten du** gehiengo osoz.*
3. **[Ahozkoan] **Sinatzen didazu** agiri hau, mesedez?*
4. **Araitz herria Nafarroan **aurkitzen da**, Orexatik eta Lizartzatik oso gertu.*
5. **[Ahozkoan] Bihar zer ordutan **geratzen gara** liburutegira joateko?*
6. **[Ahozkoan] Isilik, mesedez. **Hasten dugu** bilera?*
7. **Administrari lanposturako azterketa 10:00etan hasi eta 11:30ean **bukatzen da**.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. -t(z)en ezin da erabili bukatuta dauden ekintzak adierazteko. Normalean, ohiturak edo ohiko diren ekintzak adierazteko erabiltzen da (Ad. Astero gelditzen dira futboleko jokatzeko.). Ekintza bukatuta badago, “erabaki du”, “bukatu du” eta horrelakoak erabili behar dira.

Ad. Udalbatzak txostena onartzea **erabaki du**, eta, horrenbestez, bilera **bukatu da**.

2. Gaztelaniaz zuzena da iraganeko gertaerez ari garela presente historikoa erabiltzea (ad. en marzo de 1998 se convocan elecciones). Euskaraz, horrelako kasuetan, lehenaldia erabili behar da.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Ad. 1998ko martxoa: hauteskondeak **egin ziren** eta XXX alderdiak **irabazi zuten** gehiengo osoz.

3. Ekintza etorkizunean kokatzen bada, ezin da -t(z)en erabili. Nahiz eta ekintza hemendik segundo batera bakarrik izan, -ko/-go erabili beharko dugu euskaraz.

Ad. **Sinatuko didazu** agiri hau, mesedez?

4. Aurreko batean adierazi genuenez, “aurkitzen da” gaztelaniazko “se encuentra” espresioaren kalkoa da. Euskarazko forma zuzena eta jatorra “dago” da.

Ad. Araitz herria Nafarroan **dago**, Oreatatik eta Lizartatik oso gertu.

Bestalde oso ohikoa da “kokatuta dago” espresioa erabiltzea, eta hori ere gaztelaniazko kalkoa da (=“está situad@”), eta ez da zuzena.

5. Goraxeago azaldu dugunez, ekintza etorkizunean kokatzen bada, ezin da -t(z)en erabili.

Ad. Bihar zer ordutan **geratuko gara** liburutegira joateko?

Ad. Isilik, mesedez. **Hasiko dugu** bilera?

Ad. Administrari lanposturako azterketa 10:00etan hasi eta 11:30ean **bukatuko da**.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99